Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

FORU AGINDUA, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautuko duen foru dekretu bat egiteko prozedura hasteko baimena ematen duena.

Uztailaren 12ko 6/2005 FORU ARAUAK, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, araututa dakar 70. artikuluan zer prozedura erabili behar den Gipuzkoako Lurralde Historikoan foru arauen aurreproiektuak eta izaera orokorreko xedapenen proiektuak egiteko. Bertan dio prozedura hasiko dela gaian eskumena duen departamentuko foru diputatuak hala agintzen duenean.

Artikulu horren 1. apartatuko b) letrak xedatzen duenez, prozedura hasteko aginduak arauaren gaia eta xedea azaldu behar ditu laburki, eta txosten bat izan behar du erantsia adierazteko zer eragin izango duen indarrean dagoen lege antolamenduan, bere bideragarritasun ekonomikoa zenbatekoa den eta nola eragingo duen Gipuzkoako aurrekontuetan. Horrez gain, sektorearen eta generoaren araudiaren arabera aginduzkoak diren izapide eta txostenak egingo dira, bai eta proposatzen den erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen direnak ere.

COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta osasun krisiaren ondorioz, Europar Batasuneko estatu kideek larrialdi neurri koordinatuak hartu zituzten azkar, herritarren osasuna babesteko eta ekonomiaren kolapsoa saihesteko. Arazo horiei erantzun koordinatua eta solidarioa emateko, irismen handiko neurri sorta adostu zuen 2020ko uztailaren 21eko Europako Kontseiluak. Neurri horiek bat egiten dute 2021-2027ko urte anitzeko finantza esparruarekin eta Suspertzerako Europako Bitartekoa (Next Generation EB) abian jartzearekin.

Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, Next Generation EB berreskuratze tresna arautzen du. Tresna horrek 750.000 milioi euroko zuzkidura du, eta haren partida nagusiak honela banatzen dira:

ORDEN FORAL por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un decreto foral por el que se regula el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

El artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece el procedimiento de elaboración de los anteproyectos de Norma Foral y de los proyectos de disposiciones de carácter general en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa, disponiendo que el procedimiento se iniciará por orden del Diputado o Diputada Foral titular del Departamento competente por razón de la materia.

La letra b) del apartado 1 del referido precepto determina que la orden de iniciación expresará sucintamente el objeto y la finalidad de la norma y llevará como anexo un informe que determinará su incidencia en el ordenamiento jurídico vigente, su viabilidad económica e incidencia en los presupuestos del territorio Histórico de Gipuzkoa y los trámites e informes que sean preceptivos según la normativa sectorial y de género, y aquéllos que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta.

La crisis económica y sanitaria provocada por la COVID-19 hizo que los Estados miembros de la Unión Europea adoptaran con rapidez medidas coordinadas de emergencia para proteger la salud de la ciudadanía y evitar el colapso de la economía. Como respuesta coordinada y solidaria a estos problemas, el Consejo Europeo del 21 de julio de 2020 acordó un paquete de medidas de gran alcance. Estas medidas aúnan el marco financiero plurianual (MFP) 2021-2027 y la puesta en marcha de un Instrumento Europeo de recuperación (Next Generation EU).

El Reglamento (UE) 2020/2094 del Consejo, de 14 de diciembre de 2020 regula el Instrumento de Recuperación Next Generation EU que está dotado con hasta 750.000 millones de euros y cuyas partidas principales se distribuyen de la siguiente forma:

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

a) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (aurrerantzean, SEM): 312.500 milioi euro itzulezinak diren transferentzietan, eta 360.000 milioi euro maileguetan. Next Generation EBren tresna nagusiena da, eta 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak arautzen du.
b) Kohesioa eta Europako lurraldeetarako suspertzeko REACT-EU Funtsak: 47.500 milioi.

a) Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR en adelante): 312.500 millones de euros en transferencias no reembolsables y 360.000 millones de euros en préstamos. Es la pieza central del Next Generation EU y está regulado por el Reglamento (UE) 2021/241, de 12 de febrero de 2021.
b) Fondos REACT-EU de Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa 47.500 millones.

Suspertzerako Europako Bitartekoaren funtsekin lotutako proiektuak gauzatzeak planteatzen duen erronkari erantzuteko gai izango den administrazio moderno eta arina izateko modernizazio prozesu bati ekiteko helburuarekin, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartu da, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean SEEP) egikaritzeko.

Ondoren, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren bidez (SEEP-ren kudeaketa-sistema eratzen duena), Europar Batasuneko araudiak SEEP gauzatzeko ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko gidalerroak zehazten dira, dagozkien organoen kudeaketari dagokionez. Era berean, HFP/1031/2021 Agindua onartzen da, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua, mugarri eta helburuen betetze mailaren jarraipena egiteko eta SEEP-ko osagaien neurrien aurrekontu eta kontabilitate betearazpenerako.

Europako Batzordeak interes-gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzearen arloan SEM-aren onuradun diren estatu kideei eskatzen dizkien errekerimenduak betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan oinarrituta, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua eman zen, SEEP betearazten duten prozeduretan interes gatazkak sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

an hartuta deskribatutako erregulazioak beharrezkoa ɔernantza egitura arin bat izatea, SEEP-ren funtsekin :atutako proiektuen kudeaketara, inplementaziora eta zunetara hobeto egokitzeko.

Con objeto de acometer un proceso de modernización para contar con una Administración moderna y ágil, capaz de responder al desafío que la ejecución de proyectos vinculados a los fondos del Instrumento Europeo de Recuperación plantea, se aprueba el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR en adelante).

Posteriormente, mediante la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del PRTR se concretan las directrices que garanticen el cumplimiento coordinado de los requerimientos establecidos por la normativa comunitaria para la ejecución del PRTR en cuanto a gestión por parte de los órganos correspondientes. A su vez, se aprueba la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del PRTR.

Con objeto de cumplir con los requerimientos en el ámbito de la prevención, detección y corrección del conflicto de interés que la Comisión Europea exige a los Estados Miembros beneficiarios del MRR sobre la base del artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, se dicta la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR.

Teniendo en cuenta las regulaciones descritas, es necesario contar con una estructura de gobernanza ágil para la mejor gestión, implementación y adaptación a las exigencias de los proyectos financiados con fondos PRTR.

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Hortaz, araugintza prozedura bat hasi beharra dago azken aipatu den xederekin.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzeko foru dekretu bat egiteko prozedura has dadin agintzea.

Procede, por tanto, iniciar un procedimiento de elaboración normativa con el objeto señalado.

En su virtud,

RESUELVO

Ordenar la iniciación del procedimiento de elaboración de un Decreto Foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

ERANSKINA

FORU AGINDUA, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautuko duen foru dekretu bat egiteko prozedura hasteko baimena ematen duena.

Uztailaren 12ko 6/2005 FORU ARAUAK, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, araututa dakar 70. artikuluan zer prozedura erabili behar den Gipuzkoako Lurralde Historikoan foru arauen aurreproiektuak eta izaera orokorreko xedapenen proiektuak egiteko. Bertan dio prozedura hasiko dela gaian eskumena duen departamentuko foru diputatuak hala agintzen duenean

Artikulu horren 1. apartatuko b) letrak xedatzen duenez, prozedura hasteko aginduak arauaren gaia eta xedea azaldu behar ditu laburki, eta txosten bat izan behar du erantsia adierazteko zer eragin izango duen indarrean dagoen lege antolamenduan, bere bideragarritasun ekonomikoa zenbatekoa den eta nola eragingo duen Gipuzkoako aurrekontuetan. Horrez gain, sektorearen eta generoaren araudiaren arabera aginduzkoak diren izapide eta txostenak egingo dira, bai eta proposatzen den erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen direnak ere.

Araututako betetze aldera, proposatzen da foru agindu bidez baimentzea prozedura hasi dadila eranskin honetako goiburuan adierazitako foru dekretua prestatzeko.

EDUKIA

COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta osasun krisiaren ondorioz, Europar Batasuneko estatu kideek larrialdi neurri koordinatuak hartu zituzten azkar, herritarren osasuna babesteko eta ekonomiaren kolapsoa saihesteko. Arazo horiei erantzun koordinatua eta solidarioa emateko, irismen handiko neurri sorta adostu zuen 2020ko uztailaren 21eko Europako Kontseiluak. Neurri horiek bat egiten dute 2021-2027ko urte anitzeko finantza esparruarekin eta Suspertzerako Europako Bitartekoa (Next Generation EB) abian jartzearekin.

ANEXO

ORDEN FORAL por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un decreto foral por el que se regula el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

El artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece el procedimiento de elaboración de los anteproyectos de Norma Foral y de los proyectos de disposiciones de carácter general en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa, disponiendo que el procedimiento se iniciará por orden del Diputado o Diputada Foral titular del Departamento competente por razón de la materia.

La letra b) del apartado 1 del referido precepto determina que la orden de iniciación expresará sucintamente el objeto y la finalidad de la norma y llevará como anexo un informe que determinará su incidencia en el ordenamiento jurídico vigente, su viabilidad económica e incidencia en los presupuestos del territorio Histórico de Gipuzkoa y los trámites e informes que sean preceptivos según la normativa sectorial y de género, y aquéllos que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta.

En cumplimiento de dicha regulación se propone la aprobación de la Orden Foral pertinente para la autorización del inicio del procedimiento de elaboración del Decreto Foral referido en el encabezamiento del presente Anexo.

CONTENIDO

La crisis económica y sanitaria provocada por la COVID-19 hizo que los Estados miembros de la Unión Europea adoptaran con rapidez medidas coordinadas de emergencia para proteger la salud de la ciudadanía y evitar el colapso de la economía. Como respuesta coordinada y solidaria a estos problemas, el Consejo Europeo del 21 de julio de 2020 acordó un paquete de medidas de gran alcance. Estas medidas aúnan el marco financiero plurianual (MFP) 2021-2027 y la puesta en marcha de un Instrumento Europeo de recuperación (Next Generation EU).

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, Next Generation EB berreskuratze tresna arautzen du. Tresna horrek 750.000 milioi euroko zuzkidura du, eta haren partida nagusiak honela banatzen dira:

a) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (aurrerantzean, SEM): 312.500 milioi euro itzulezinak diren transferentzietan, eta 360.000 milioi euro maileguetan. Next Generation EBren tresna nagusiena da, eta 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak arautzen du.

b) Kohesioa eta Europako lurraldeetarako suspertzeko REACT-EU Funtsak: 47.500 milioi**.**

Suspertzerako Europako Bitartekoaren funtsekin lotutako proiektuak gauzatzeak planteatzen duen erronkari erantzuteko gai izango den administrazio moderno eta arina izateko modernizazio prozesu bati ekiteko helburuarekin, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartu da, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean SEEP) egikaritzeko.

Ondoren, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren bidez (SEEP-ren kudeaketa-sistema eratzen duena), Europar Batasuneko araudiak SEEP gauzatzeko ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko gidalerroak zehazten dira, dagozkien organoen kudeaketari dagokionez. Era berean, HFP/1031/2021 Agindua onartzen da, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua, mugarri eta helburuen betetze mailaren jarraipena egiteko eta SEEP-ko osagaien neurrien aurrekontu eta kontabilitate betearazpenerako.

Europako Batzordeak interes-gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzearen arloan SEM-aren onuradun diren estatu kideei eskatzen dizkien errekerimenduak betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan oinarrituta, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua eman zen, SEEP betearazten duten prozeduretan interes gatazkak sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa

Kontuan hartuta deskribatutako erregulazioak beharrezkoa da gobernantza egitura arin bat izatea,

El Reglamento (UE) 2020/2094 del Consejo, de 14 de diciembre de 2020 regula el Instrumento de Recuperación Next Generation EU que está dotado con hasta 750.000 millones de euros y cuyas partidas principales se distribuyen de la siguiente forma:

a) Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR en adelante): 312.500 millones de euros en transferencias no reembolsables y 360.000 millones de euros en préstamos. Es la pieza central del Next Generation EU y está regulado por el Reglamento (UE) 2021/241, de 12 de febrero de 2021.

b) Fondos REACT-EU de Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa 47.500 millones.

Con objeto de acometer un proceso de modernización para contar con una Administración moderna y ágil, capaz de responder al desafío que la ejecución de proyectos vinculados a los fondos del Instrumento Europeo de Recuperación plantea, se aprueba el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR en adelante).

Posteriormente, mediante la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del PRTR se concretan las directrices que garanticen el cumplimiento coordinado de los requerimientos establecidos por la normativa comunitaria para la ejecución del PRTR en cuanto a gestión por parte de los órganos correspondientes. A su vez, se aprueba la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del PRTR.

Con objeto de cumplir con los requerimientos en el ámbito de la prevención, detección y corrección del conflicto de interés que la Comisión Europea exige a los Estados Miembros beneficiarios del MRR sobre la base del artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, se dicta la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR

Teniendo en cuenta las regulaciones descritas, es necesario contar con una estructura de gobernanza ágil

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

SEEP-ren funtsekin finantzatutako proiektuen kudeaketara, inplementaziora eta eskakizunetara hobeto egokitzeko

para la mejor gestión, implementación y adaptación a las exigencias de los proyectos financiados con fondos PRTR.

FORU DEKRETUA PRESTATZEKO PROZEDURA

Foru dekretu hau prestatzeko prozedurari dagokionez, aurrenik esan beharra dago ezen, proposatzen den aldaketaren xedeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren antolaketaren alderdi bat arautzen duenez, ez dela gauzatu aurretiazko kontsulta tramitea, hain zuzen ere urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 133. artikuluan jasotakoa, arau proposamena aipatutako artikuluaren 4. apartatuan salbuesten den kasuetako batean sartzen delako. Hori alde batera utzita, prozedura honek tramite eta txosten hauek egitea dakar berekin:

1. Gardentasunaren atarian argitaratzea

Martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauak, foru gobernantza publikoaren esparruan izan beharreko Gobernu Onari buruzkoak, 32.a) artikuluan dioenez, foru dekretu proiektuaren tramitazioan aurreikusita dauden mugarriak gardentasunaren atarian argitaratu behar dira

2. Arau proposamena prestatzea

Uztailaren 29ko 393/2016 Foru Aginduak Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari esleitzen dio xedapen orokorrak egiteko aholkularitza juridikoa eta lankidetza, baldin eta, departamentu horren eskumenekoak izanik, haiek zerga izaerarik ez badute.

Bestetik, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko irailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretuko 20.3 artikuluak zehazten duenez, Idazkaritza Teknikoak egingo du berari agintzen zaizkion xedapen orokorren proiektuen azterketa, prestaketa eta jarraipena.

3. Zirriborroa Ogasun eta Finantza Departamentuko zuzendaritza nagusiei, zuzendariordetzei eta ukitutako zerbitzuei helaraztea.

Zirriborro proposamena behin prestatu ondoren, zuzendaritza nagusien, zuzendariordetzen edo ukitutako zerbitzuen esku jarri behar da, beren iritzia eman eta egoki irizten dituzten oharrak egin ditzaten.

PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN

En cuanto al procedimiento de elaboración de este Decreto Foral, se debe señalar que en tanto que el objeto del mismo es la regulación de un aspecto organizativo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se ha omitido el trámite de consulta previa previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, al considerar que la propuesta normativa cumple uno de los supuestos excepcionados por el apartado 4 del mencionado artículo. Por lo demás, el procedimiento está sujeto a la evacuación de los siguientes trámites e informes:

1. Publicación en el portal de transparencia.

Tal y como establece el artículo 32.a) de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública, se publicarán los hitos previstos en la tramitación del proyecto de decreto foral en el portal de transparencia.

2. Elaboración de la propuesta normativa

La orden foral 393/2016, de 29 de julio, atribuye a la Secretaría Técnica del departamento de Hacienda y Finanzas, el asesoramiento jurídico y la colaboración en la elaboración de disposiciones de carácter general que, siendo competencia de este departamento, no tengan carácter de tributarias.

Por su parte, el artículo 20.3 del Decreto Foral 10/2020, de 29 de septiembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas determina que, se elaborará por la Secretaría Técnica el estudio, la elaboración y el seguimiento de los proyectos de disposiciones generales que se le encomienden.

3. Comunicación del borrador a las Direcciones Generales, Subdirecciones o Servicios del Departamento de Hacienda y Finanzas afectados.

Una vez elaborada la propuesta de borrador, ésta deberá ser sometida a la/s Dirección/es General/es, Subdirección/ones o Servicio/s a quienes afecte la propuesta, a los efectos de recabar su opinión o recoger las observaciones que se considere oportuno realizar.

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

4. Proposamena Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuko Azterlanen Atalari jakinaraztea, testua genero ikuspegitik ebaluatzeko txostena egin dezan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan aurreikusten duen bezala.

Zirriborroa aipatutako atalari bidali behar zaio genero eraginaren aldez aurreko ebaluazio txostena egin dezan.

5. Testua jaso duten organoen iradokizunak eta oharrak aztertu eta baloratzea, genero eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostenean adierazitakoak ere barne.

Iradokizun edo ohar horien azterketa eta baloraziotik, eta, orobat, aipatutako ebaluazio txostenaren analisitik, arau proposamenaren behin betiko testua aterako da.

6. Idazkaritza Teknikoaren txosten juridikoa.

Txosten juridikoa prestatuko da, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluaren 1. apartatuko c) letraren azken tartekian jsotakoari jarraituz.

7. Hasierako agindua eman zuen organoaren proposamenari adostasuna ematea.

Testua Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari aurkeztuko zaio, oniritzia eman diezaion.

8. Testua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organora bidaltzea nahitaezko txostena egin dezan.

Foru diputatuak oniritzia eman ondoren, eta genero eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak 27.2.a) artikuluan aipatua, behin egindakoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organora bidaliko dira foru arau horren 27.2.b) artikuluan aipatzen den nahitaezko txostena egin dezan.

9. Jendaurreko informazio tramitea egitea.

Testuak foru diputatuaren oniritzia jaso eta gero, jendaurrean jarri behar da, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan

4. Comunicación a la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales para la elaboración del informe de evaluación previa del impacto en función del género prevista en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

Se dará traslado del borrador a la citada Sección para que elabore el informe de evaluación previa del impacto en función del género.

5. Análisis y valoración de las sugerencias y observaciones efectuadas por los órganos a los que se haya comunicado el texto, así como las efectuadas en el informe de evaluación previa del impacto en función del género.

Del análisis y valoración de dichas sugerencias u observaciones, y del informe citado, resultará la última redacción de la propuesta normativa.

6. Informe jurídico de la Secretaría Técnica.

Se evacuará el informe jurídico previsto en la letra c), último inciso, del apartado 1 del artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

7. Conformidad con la propuesta del órgano que dictó la orden de inicio.

El texto se someterá al visto bueno del diputado foral del Departamento Hacienda y Finanzas.

8. Comunicación al Órgano para la igualdad de mujeres y hombres para el informe preceptivo.

El texto sometido al visto bueno del diputado foral, junto con el informe de evaluación previa del impacto en función del género a que se refiere el artículo 27.2.a) de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, será remitido al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres, que emitirá el informe preceptivo previsto en el artículo 27.2.b) de la citada Norma Foral.

9. Trámite de información pública.

Se evacuará el trámite de información pública del texto sometido al visto bueno del diputado foral, siendo publicado en la sede electrónica de la Diputación Foral

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean argitaratuko da.

10. Jendaurreko informazio tramitea eta genero txostena egin ondorengo testua idaztea.

Informazioa jendaurrean jartzeko tramitea bukatutakoan, eta aurreproiektuari egindako oharrak eta generoaren nahitaezko txostenetik eratorritakoak behin aztertuta, halakorik bada, behin betiko testua idatziko da.

11. Memoria

Arau proposamenari legez ezarritako tramite eta beharkizunen konplimenduari buruzko memoria erantsi behar zaio, eta bertan aipatuta utzi zer arauk gaitzen duen/duten proposamena prestatzea, eta zer txosten eskatu eta egin diren. Horrez gain, eragin ekonomikoari buruzko memoria ere aurkeztu behar da.

12. Lege Aholku Batzordearen txostena.

Proposamena Lege Aholku Batzordera igorriko da irizpena eman dezan.

13. Azkenik, proposamena Diputatuen Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan.

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA ETA AURREKONTU ERAGINA.

Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eta Gipuzkoako aurrekontu orokorretan duen eraginari dagokienez, erantsita bidaltzen da Ogasun eta Finantza Departamentuko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuak Azterlanen Atalaren bitartez egindako txostena.

de Gipuzkoa y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas.

10. Redacción del texto resultante después del trámite de información pública y del informe de género.

Finalizado el trámite de información pública y una vez analizadas las observaciones hechas al anteproyecto, así como las derivadas del informe preceptivo de género, en su caso, se procederá a redactar el texto definitivo.

11. Memoria.

Se adjuntará a la propuesta normativa una memoria sobre el cumplimiento de los trámites y requisitos legales establecidos al efecto, con referencia a la norma o normas habilitantes y a los informes recabados y emitidos, y sobre su repercusión económica.

12. Informe de la Comisión Jurídica Asesora.

Se remitirá la propuesta a la Comisión Jurídica Asesora al objeto de someterla a su dictamen.

13. Por último, se someterá la propuesta a la aprobación del Consejo de Gobierno.

VIABILIDAD ECONÓMICA E INCIDENCIA PRESUPUESTARIA

En cuanto a la viabilidad económica e incidencia en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se adjunta informe elaborado por la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Idazkaritza Teknikoko Zerbitzu Juridikoen Ataleko AOT

TAG de la Sección de Servicios Jurídicos de la Secretaría Técnica

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

FA-OG-2023-0289 2023/07/04

Titulua / Título:	ANEXO a OF inicio DF Gobernanza implementación fondos MRR

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
GARZON LAPLACE, AMAIA - Idazkaritza Teknikoko Zerbitzu Juridikoen Ataleko AOT / TAG de la Sección de Servicios Jurídicos de Secretaría Técnica
Data / Fecha: 2023/06/21 12:49:56

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinaturakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Txostena: bideragarritasun ekonomikoa eta eragina Gipuzkoako lurralde historikoko aurrekontuetan

Informe sobre viabilidad económica e incidencia en los Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa

Foru Agindua, baimena ematen duena Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen funts europarrak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzeko Foru Dekretu bat egiteko prozedura hasteko

Orden Foral por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un Decreto Foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

Proiektu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik

Es objeto del presente proyecto regular el marco general de la estructura de gobernanza, para una mejor

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

(SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Asmoa da funts horien kudeaketan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.

Se pretende reforzar los mecanismos para la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de interés en la gestión de dichos fondos.

Proiektuak kudeatzen dituzten departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen eginkizunak, konpromisoak eta betebeharrak ezartzen dira.

Se establecen las funciones, compromisos y obligaciones que tendrán los departamentos y demás entidades del sector público foral que gestionen los proyectos.

Era berean, besteak beste, honako alderdi hauek ezartzen dira:

Asimismo, se establece, entre otros aspectos, que:

- Gobernantzako Departamentua arduratuko da giza baliabideen kudeaketari, kontratazioari, prestakuntzari, zuzentasun sistemari eta bere eskumeneko beste gai batzuei buruzko gaiez.

- El Departamento de Gobernanza será el encargado de las materias relativas a la gestión de recursos humanos, contratación, formación, sistema de integridad y otras materias de su competencia.

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

- Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu SEM funtsen kontu-hartze, fiskalizazio, kontrol eta auditoretzako eginkizunak eta eskumenak.

- La Dirección de Finanzas y Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas tendrá a su cargo el ejercicio de las funciones y competencias de intervención, fiscalización, control y auditoría de los fondos MRR.

- Ogasun eta Finantza departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia arduratuko da: SEM funtsetatik datozen finantzaketa aukerak identifikatzeaz eta zabaltzeaz, finantzaketa eskaerak aurkezten laguntzeaz, planteatzen diren kontsultei erantzuteaz, SEM funtsei buruzko informazioa hedatzeaz, finantzatutako proiektuen egoeraren berri emateaz Batzar Nagusiei...

- La Dirección General de Política fiscal y Financiera del Departamento de Hacienda y Finanzas será la encargada de la identificación y difusión de oportunidades de financiación procedentes de los fondos MRR, apoyará la presentación de solicitudes de financiación, atenderá las consultas que se planteen, difundirá información relativa a los fondos MRR, dará cuenta a las Juntas Generales del estado de los proyectos financiados...

Azkenik, lan batzorde tekniko bat eratzen da, departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen jarduerak laguntzeko eta koordinatzeko organo gisa, SEMaren jarraipena egite aldera.

Finalmente, se constituye una comisión técnica de trabajo como órgano de apoyo y coordinación de las actuaciones de los distintos departamentos y entes del sector público foral para el seguimiento del MRR.

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Bideragarritasun ekonomikoa eta aurrekontu eragina

Proposatutako neurrien helburua da SEMetik datozen funts europarren ezarpena hobetzea. Ez dute inolako zuzeneko eraginik zerga-bilketan.

Beraz, eta hasera batean, proiektu honetan jasotako neurriak bideragarriak dira ekonomikoki, eta beraien eragina Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuetan jasangarria da.

Donostia, 2023ko ekainaren 20a

Viabilidad económica e incidencia en los Presupuestos

El objetivo de las medidas propuestas es mejorar la implementación de los fondos europeos provenientes del MRR. No tienen ningún efecto recaudatorio directo.

Por tanto, y en un principio, las medidas contempladas en este proyecto resultan viables económicamente y su incidencia en términos cuantitativos dentro de los Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa es asumible.

San Sebastián, a 20 de junio de 2023

Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS

FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Sinadura laburpena

Resumen de firmas

FA-OG-2023-0289

Izenburua | Título:

FDaren prozeduraren hasiera, Gobernantza SEM funtsak inplementazioa
Inicio procedimiento elaboración DF, Gobernanza implementación fondos MRR

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den foru agindu originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la orden foral original a la que hace referencia este documento.

Sinatzailea | Firmante:PERONA LERCHUNDI, Jokin

Data | Fecha:2023ko uztailaren 4an

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **FAEBc29a10d5-21a3-4b1f-8c4d-6660dbc942bb**
Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Aurretiazko genero eraginaren txostena

Foru dekretu proiektua, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen funts europarrak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzeko

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

Informe de evaluación previa de impacto de genero

Proyecto de decreto foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo cumplir con el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

2. Arau aldaketak

Proiektu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

Asmoa da funts horien kudeaketan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.

2. Modificaciones normativas

Es objeto del presente proyecto regular el marco general de la estructura de gobernanza, para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Se pretende reforzar los mecanismos para la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de interés en la gestión de dichos fondos.

Proiektuak kudeatzen dituzten departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen eginkizunak, konpromisoak eta betebeharrak ezartzen dira.

Se establecen las funciones, compromisos y obligaciones que tendrán los departamentos y demás entidades del sector público foral que gestionen los proyectos.

Era berean, besteak beste, honako alderdi hauek ezartzen dira:

Asimismo, se establece, entre otros aspectos, que:

- Gobernantzako Departamentua arduratuko da giza baliabideen kudeaketari, kontratazioari, prestakuntzari, zuzentasun sistemari eta bere eskumeneko beste gai batzuei buruzko gaiez.

- El Departamento de Gobernanza será el encargado de las materias relativas a la gestión de recursos humanos, contratación, formación, sistema de integridad y otras materias de su competencia.

- Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu BEM funtsen kontu-hartze, fiskalizazio, kontrol eta auditoretzako eginkizunak eta eskumenak.

- La Dirección de Finanzas y Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas tendrá a su cargo el ejercicio de las funciones y competencias de intervención, fiscalización, control y auditoría de los fondos MRR.

- Ogasun eta Finantza departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia arduratuko da: BEM funtsetatik datozen finantzaketa aukerak identifikatzeaz eta zabaltzeaz, finantzaketa eskaerak aurkezten laguntzeaz, planteatzen diren kontsultei erantzuteaz, BEM funtsei buruzko informazioa hedatzeaz, finantzatutako

- La Dirección General de Política fiscal y Financiera del Departamento de Hacienda y Finanzas será la encargada de la identificación y difusión de oportunidades de financiación procedentes de los fondos MRR, apoyará la presentación de solicitudes de financiación, atenderá las consultas que

proiektuen egoeraren berri emateaz Batzar Nagusiei...

se planteen, difundirá información relativa a los fondos MRR, dará cuenta a las Juntas Generales del estado de los proyectos financiados...

Azkenik, lan batzorde tekniko bat eratzen da, departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen jarduerak laguntzeko eta koordinatzeko organo gisa, BEMaren jarraipena egite aldera.

Finalmente, se constituye una comisión técnica de trabajo como órgano de apoyo y coordinación de las actuaciones de los distintos departamentos y entes del sector público foral para el seguimiento del MRR.

Ezartzen da, aipatutako lan batzorde teknikoa osatzean, bermatu egingo dela emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua, 2/2015 Foru Arauak, 2015eko martxoaren 9koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Se establece que la constitución de la citada comisión técnica de trabajo garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo establecido en el artículo 21.2 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3. Genero eragina

3. Impacto de género

3.1 Genero egokitasuna

3.1. Pertinencia de género

Proiektu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

El objeto de este proyecto es regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Funts horiei lotutako proiektuak gauzatzeak, azkenik, Gipuzkoako emakume eta gizonei mesede egingo die. Beraz, horiek hobeto kudeatzeko eta ezartzeko gobernantza egitura arina izateak herritarrei eragiten die, eta eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko eta/edo kontrolatzeko orduan, eta genero rolak haustea eragin dezake. Horregatik guztiagatik, proiektu hau genero ikuspegitik aztertzea egokia dela erabaki da.

La ejecución de los proyectos vinculados a esos fondos beneficiará, en último término, a las mujeres y hombres de Gipuzkoa. Por tanto, contar con una estructura de gobernanza ágil para la mejor gestión e implementación de los mismos, afecta a la ciudadanía, e influye en el acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, y puede incidir en la ruptura de roles de género. Por todo ello, se determina que el presente proyecto es pertinente al análisis de género.

3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2.1 Araugintza mandatuak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen jardunean genero ikuspegia txertatzeko deskribatzen dituen neurrien artean, 21. artikuluan zehazten du ordezkaritza orekatutzat hartuko dela "emakumeen eta gizonen presentzia bermatzen duen egoera, dagokion multzoan, sexu bakoitzeko pertsonek ehuneko hirurogei

3.2 Valoración del impacto de género

3.2.1 Mandatos normativos

La Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, entre las medidas que describe para integrar la perspectiva de género en la actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las entidades integrantes del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, especifica en su artículo 21 que se entenderá por representación equilibrada: "aquella situación que garantice la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el

gainditu gabe eta ehuneko berrogei baino gutxiago izan gabe".

conjunto a que se refiera, las personas de cada sexo ni superen el sesenta por ciento ni sean menos del cuarenta por ciento".

Artikulu berak, 3. apartatuan dioenez, salbuespen gisa ez dira bete beharko garatutako irizpideak, beti Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aldeko txostenarekin, baldin eta ezarritako inguruabar batzuk gertatzen badira: "organoko kideak karguaren arabera izendatzen badira eta/edo izendapen hori instituzio edo erakunde batek baino gehiagok egiten badute. Kasu horretan, ordezkaritza orekatuaren irizpideari eutsi beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako pertsona taldeari dagokionez, aurreko apartatuetan jasotako kasuren bat aplikatzekoa denean izan ezik".

Continúa el mismo precepto, en su apartado 3, señalando que los criterios desarrollados no habrán de cumplirse excepcionalmente, siempre con el informe favorable del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cuando se den una serie de circunstancias estipuladas: "cuando se trate de órganos en los que la designación de sus integrantes se haga en función del cargo y/o cuando esta designación sea realizada por varias instituciones u organizaciones. En este caso, el criterio de representación equilibrada se deberá mantener por lo que respecta al grupo de personas designadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa, salvo que sea de aplicación alguno de los supuestos contemplados en los apartados anteriores".

Jarduketetan genero ikuspegia txertatzeari dagokionez, 2/2015 Foru Arauaren 19.2 artikuluak ezartzen du departamentu guztiek eta haiei atxikitako foru organismo autonomo, enpresa entitate publiko eta merkataritza sozietate, zuzendaritza eta zerbitzu guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dutela. Horretarako, bakoitzak bere jarduera esparruan, neurri zehatzak

En relación con la incorporación de la perspectiva de género en las actuaciones, el artículo 19.2 de la Norma Foral 2/2015 establece que todos los departamentos, los organismos autónomos, entidades públicas empresariales y de las sociedades mercantiles forales adscritas a los mismos, direcciones y servicios de la Diputación Foral de Gipuzkoa promoverán la igualdad de

programatu eta ezarriko ditu, neurri horien jarraipena egingo du, eta norberaren alorreko politiketan generoaren ikuspegia integratuko dute.

mujeres y hombres, para lo que programarán, implementarán y darán seguimiento a las medidas concretas en su ámbito de actuación y, en general, integrarán la perspectiva de género en sus correspondientes políticas sectoriales.

Ildo beretik, 19.4 artikuluak honako hau ezartzen du: Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztiek eta haiei atxikitako foru organismo autonomo, enpresa entitate publiko eta merkataritza sozietate guztiek hurrengo kapituluetan zehaztuta ageri diren neurri orokorrak hartuko dituzte, lan arlo guztietako prozedura erkideekin loturik daudenez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten entitate guztiek beren jardunean genero ikuspegia integratu dezaten.

En el mismo sentido, el artículo 19.4 establece que los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, los organismos autónomos, entidades públicas empresariales y de las sociedades mercantiles forales adscritas a los mismos, desarrollarán las medidas de carácter general, recogidas en los siguientes capítulos, para la integración de la perspectiva de género en la actuación de todas las entidades integrantes del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa y que se relacionan con procedimientos comunes a todas las áreas de trabajo sectoriales.

3.2.2 Hartutako neurriak

Proiektu honen 7. artikuluaren arabera, lan batzorde teknikoa osatzean, bermatu egingo da emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua dela 2/2015 Foru Arauak, 2015eko martxoaren 9koak, Emakumeen eta Gizonen

3.2.2 Medidas adoptadas

Según el artículo 7 de este proyecto, en la constitución de la comisión técnica de trabajo se garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo establecido en el artículo

Berdintasunerakoak, 21.2 artikuluan eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bateginaren 3.10 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

21.2 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el artículo 3.10 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

Proiektu honen 7. artikuluaren arabera, lan batzorde teknikoa Ogasun eta Finantza Departamentua eta Gobernantzako Departamentua ordezkatzen dituzten teknikariek osatuko dute. Era berean, zehazten da, Laneko Batzorde Teknikoaren gonbidapenaren bidez, beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute, besteak beste Berdintasuna Organoak genero ikuspegia txertatzeko, baita egokitzat jotzen diren kanpoko pertsonek ere.

Según el artículo 7 de este proyecto, la comisión técnica de trabajo estará formada por personal técnico representante del Departamento de Hacienda y Finanzas y del Departamento de Gobernanza. A su vez, se señala que, mediante invitación de la Comisión Técnica de Trabajo, podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos el Órgano de Igualdad, para incorporar la perspectiva de género, así como las personas ajenas que se consideren oportunas.

3.2.2 Genero eragina

Proiektu horren 7. artikuluak xedatzen du lan batzorde teknikoa eratzean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan behar dela. Era berean, Berdintasun Organoak parte hartzeko aukera ezartzen da, genero ikuspegia txertatzeko.

3.2.3 Impacto de género

El artículo 7 de este proyecto dispone el deber de tener una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la constitución de la comisión técnica trabajo. Asimismo, se establece la posibilidad de participación del Órgano de Igualdad, para la incorporación de

la perspectiva de género.

Beraz, proiektu honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eragin positiboa izango duela ondoriozta daiteke.

Por lo tanto, se puede concluir que este proyecto tendrá un impacto positivo en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto.

Donostia, 2023ko irailaren 27a

San Sebastián, a 27 de septiembre de 2023

Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS

GENERO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO NAHITAEZKO TXOSTENA, BERRESKURATZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOTIK (BEM) DATOZEN FUNTS EUROPARRAK HOBETO INPLEMENTATZEKO GOBERNANTZA EGITURAREN ESPARRU OROKORRA ARAUTZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egiten da txosten hau, foru arau hauek xedatutakoa betetzeko asmoz: alde batetik, *6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa,* Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa –70. artikulua–; eta bestetik, *2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa* –27. artikulua–.

Zehazki, txostenaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez arau eta jarraibide hauetan xedatutakoa: *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren* 27. b) artikulua, eta *Gipuzkoako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenen genero eragina aldez aurretik ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak, 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz* onartutakoak. Orobat, helburua da zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

2023ko irailaren 27an, Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu zion goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiaztatzeko txostena.

Foru dekretu bat da; ondorioz, *2/2015 Foru Arauaren* 27.1 artikuluak ezarritakoari jarraikiz, genero eraginaren aurre ebaluazioa behar du. Eta xede horrekin, proiektua sustatu edo eragin duen organoak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioko txostena egin du, aipatutako arauko 27.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, hain zuzen ere.

Ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena egin du, *15/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak*, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

EGIAZTAPENA

Aurkeztutako genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak foru dekretuaren proiektuaren **deskribapen orokorra** egiten du, eta haren helburua zehazten du: gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko eta, horrekin batera, funts horien kudeaketan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea. Era berean, gobernantza egitura horren esparru orokorrean arautzen diren alderdien berri ematen da: proiektuak kudeatzen dituzten departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen eginkizunak, konpromisoak eta betebeharrak ezartzea (3. artikulua), arreta berezia jarriz Gobernantza Departamentuaren, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunetan (4-6 artikulua); eta Lan Batzorde Tekniko bat eratzea, departamentuen eta foru sektore publikoko entitateen jarduerak laguntzeko eta koordinatzeko organo gisa, BEMaren jarraipena egite aldera (7. artikulua).

Proiektuaren deskribapen orokorraren ondoren, txostenak **behar bezala identifikatzen du foru dekretuaren proiektuaren genero egokitasuna.** Horretarako, argudiatzen da egokia dela, honegatik: «funtsak hobeto kudeatzeko eta inplementatzeko gobernantza egitura arina izateak herritarrei eragiten die, eta eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko eta/edo kontrolatzeko orduan, eta genero rolak haustea eragin dezake».

Jarraian, arautzen den BEMetik datozen Europako funtsetarako gobernantza egituraren **genero eraginaren balorazioa** egiten du txostenak.

Horretarako, lehenik eta behin, Gipuzkoako Foru Aldundia emakumeen berdintasunaren arloan behartzen duen arau esparrua identifikatzen du, eta bi alderdi zehatz aipatzen ditu:

- Emakumeen eta gizonen ordezkaritza eta parte-hartze orekatua bermatzea batzordeen, kontratazio mahaien, ebaluazio batzordeen eta abarren osaeran (*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren* 21.2 artikulua, eta *martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren* 3.10 artikulua).
- Departamentuek eta haiei atxikitako foru organismo autonomo, enpresa entitate publiko eta merkataritza sozietateek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta jarduketetan genero ikuspegia txertatzeko betebeharra (*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren* 19.2 eta 19.4 artikuluak).

Bigarrenik, foru dekretuaren proiektuan emakumeen eta gizonen berdintasunerako jasotako bi neurriak zehazten dira, zehazki 7. artikuluan, Batzorde Teknikoa sortzeari buruzkoan. Horrela, batetik, esplizituki jasotzen da Batzorde Teknikoak «emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko duela» eta, bestetik, «Laneko Batzorde Teknikoaren gonbidapenaren bidez, beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dutela, besteak beste Berdintasun Organoak, genero ikuspegia txertatzeko».

Azkenik, txostenak adierazten duenez, foru dekretuaren proiektuan jasotako emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurriak kontuan hartuta, «ondoriozta daiteke proiektu honek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eragin positiboa izango duela».

ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren* 27.2.b) artikulua betez, egiaztatzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen funts europarrak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzen duen foru dekretua sustatzen duen departamentuak **behar bezala aplikatu duela** *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren* 27. artikuluan xedatutakoa.

Eta hori horrela da Gipuzkoako Foru Aldundia behartzen duten genero egokitasuna eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau aginduak identifikatzeak, bai eta foru dekretuaren proiektuaren 7. artikuluan araututako Laneko Batzorde Teknikoaren eraketari buruzko agindu horiek betetzeko neurri espezifikoetan gauzatzeak ere, aukera ematen du ondorioztatzeko batzorde horren genero eraginaren aurretiazko balorazioa ondorio egokietara iristen dela.

Hala eta guztiz ere, foru dekretuaren testuan honako aldaketa hau egitea gomendatzen da, berariaz aipatzen baitu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak eratzen den Laneko Batzorde Teknikoan parte hartzearen helburua. Dekretuan honako hau adierazten da: «beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute, besteak beste Berdintasunerako Organoak, genero ikuspegia txertatzeko». Hala ere, Berdintasunerako Organoaren araugintza eginkizuna ez da genero ikuspegia txertatzea, betebehar hori politika sektorialen ardura duten departamentuei eta horiei atxikitako entitateei baitagokie, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren* 19.1, 19.2 eta 19.4 artikuluetan zehazten den bezala.Are gehiago, *2/2015 Foru Arau* beraren 10., 11. eta 12. artikuluetan araututako emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu unitateen eginkizunen artean daude «beren departamentuetako organoei laguntzea» edo «beren departamentuko arau, politika, programa eta ekintzetan genero ikuspegia txerta dadin bultzatzea». Hori horrela izanik,

eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak gonbidapenaren bidez parte-hartzea bereziki bermatzearen egokitasuna baloratu dela kontuan hartuta, honela egitea gomendatzen dugu:

«Era berean, Laneko Batzorde Teknikoaren gonbidapenaren bidez, beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute, besteak beste, eta salbuespen gisa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, haren eginkizun eta lan garrantzitsuenetan genero ikuspegia txertatzeko aholkuak emateko».

Azkenik, **hizkuntzaren erabilera ez sexistari** dagokionez, gaztelaniazko testuaren bertsioan hizkuntza inklusiboa erabiltzeko egindako ahalegina nabarmendu da, eta ahalegin hori ere zehaztu da txostenean.

Donostia, 2023ko urriaren 26a

Laura Gómez Hernández
Berdintasun teknikaria

Ana Agirre Sáez de Eguilaz
O.E. Zerbitzuburua

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa

INFORME PRECEPTIVO DE VERIFICACIÓN DE LA EVALUACIÓN PREVIA DE IMPACTO DE GÉNERO RELATIVA AL PROYECTO DE DECRETO FORAL PARA REGULAR EL MARCO GENERAL DE LA ESTRUCTURA DE GOBERNANZA PARA UNA MEJOR IMPLEMENTACIÓN DE LOS FONDOS EUROPEOS PROVENIENTES DEL MECANISMO DE RECUPERACIÓN Y RESILIENCIA (MRR)

Se emite el presente informe a solicitud del Departamento de Hacienda y Finanzas a fin de dar cumplimiento a lo que dispone el artículo 70 de la *Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa* y el artículo 27 de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres.*

En concreto, el informe tiene por objeto que el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres verifique la correcta aplicación de lo dispuesto en el artículo 27 b) de la *Norma Foral 2/2015 para la igualdad de mujeres y hombres* y en las *Directrices para la elaboración de Informes de Evaluación Previa del Impacto de Género de las disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa*, aprobadas por *Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral el 21 de junio de 2011*, y realice propuestas de mejora en tal sentido.

Con fecha de 27 de septiembre de 2023, el Departamento de Hacienda y Finanzas solicita al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres el informe de verificación de la evaluación previa de impacto de género sobre el proyecto arriba mencionado.

Se trata de un decreto foral por lo que, de conformidad con lo establecido en el artículo 27.1 de la *Norma Foral 2/2015*, debe ir acompañada de la correspondiente evaluación previa del impacto de género. A tal fin, el órgano promotor del proyecto ha emitido el correspondiente Informe de evaluación previa de impacto de género, en los términos previstos en el artículo 27.2 de dicha Norma.

En consecuencia, este Servicio de Igualdad, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 del *Decreto Foral 15/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Área del Diputado General,* procede a la emisión del correspondiente informe de verificación de la evaluación previa de impacto de género.

VERIFICACIÓN

El informe de evaluación previa de impacto de género presentado realiza una **descripción general** del proyecto de decreto foral, especificando su finalidad: regular el marco general de la estructura de gobernanza, para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) y, con ello, reforzar los mecanismos para la prevención, detección, corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de interés en la gestión de estos fondos. Así mismo, se da cuenta de los diversos aspectos objeto de regulación en el marco general de esta estructura de gobernanza: el establecimiento de las funciones, compromisos y obligaciones de los departamentos y demás entidades del sector público foral que gestionan los proyectos (artículo 3), con especial atención a las funciones del Departamento de Gobernanza, de la Dirección de Finanzas y Presupuestos y de la Dirección General de Política fiscal y Financiera del Departamento de Hacienda y Finanzas (artículo 4-6); y la constitución de una Comisión Técnica de Trabajo como órgano de apoyo y coordinación de las actuaciones de los departamentos y entes del sector público foral para el seguimiento del MRR (artículo 7).

Tras la descripción general del proyecto, el informe **identifica correctamente su pertinencia de género**. Para ello, se argumenta que lo es porque "contar con una estructura de gobernanza ágil para la mejor gestión e implementación de los fondos, afecta a la ciudadanía, e influye en el acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, y puede incidir en la ruptura de los roles de género".

A continuación, el informe realiza la **valoración del impacto de género** de la estructura de gobernanza para los fondos europeos provenientes del MRR que se regula.

Para ello, en primer lugar, identifica el marco normativo que obliga a la Diputación Foral de Gipuzkoa en materia de igualdad de mujeres y que hace referencia a dos aspectos en concreto:

- A la garantía de una representación y participación equilibrada de mujeres y hombres en la composición de comisiones, mesas de contratación, comisiones evaluadoras, etc. (artículo 21.2 de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres* y artículo 3.10 del *Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo*).

- Al deber de promover la igualdad de mujeres y hombres y de incorporar la perspectiva de género en las actuaciones por parte de los departamentos, los organismos autónomos, entidades públicas empresariales y de las sociedades mercantiles forales adscritas a los

mismos (artículo 19.2 y 19.4 de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres*).

En segundo lugar, se explicitan las dos medidas para la igualdad de mujeres y hombres incorporadas en el proyecto de decreto foral, específicamente en el artículo 7 referido a la creación de la Comisión Técnica. Así, por un lado, se recoge explícitamente que la Comisión Técnica "garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres" y, por otro, que "mediante invitación de la Comisión Técnica de Trabajo, podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos el Órgano de Igualdad, para incorporar la perspectiva de género".

Finalmente, el informe señala que teniendo en cuenta las medidas para la igualdad de mujeres y hombres contenidas en el proyecto de decreto foral "se puede concluir que este proyecto tendrá un impacto positivo en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres".

CONCLUSIÓN Y PROPUESTAS DE MEJORA

A tenor de todo lo expuesto y en cumplimiento del artículo 27.2.b) de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres*, se verifica que el departamento promotor del *decreto foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)*, **ha aplicado correctamente** lo dispuesto en el artículo 27 de la *Norma Foral 2/2015 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

Y esto es así porque tanto la identificación de la pertinencia de género y de los mandatos normativos en materia de igualdad de mujeres y hombres que obligan a la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como su concreción en medidas específicas que dan cumplimiento a estos mandatos en relación con la constitución de la Comisión Técnica de Trabajo, regulada en el artículo 7 del proyecto del decreto foral, permite considerar que la valoración previa de impacto de género que se realiza de este, llega a conclusiones apropiadas.

Pese a ello, se recomienda hacer la siguiente modificación en el texto del decreto foral que se refiere, específicamente, a la finalidad de la participación del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comisión Técnica de Trabajo que se constituye. En el decreto se señala que "podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos el Órgano para la Igualdad, para incorporar la perspectiva de género". Sin embargo, la función normativa del Órgano para la Igualdad no es la de incorporar la perspectiva de género, ya que esta obligación corresponde a los departamentos responsables de las diversas políticas sectoriales y a las entidades adscritas a los mismos, tal y como se especifica en el artículo 19.1, 19.2 y 19.4 de la *Norma Foral 2/2015 para la Igualdad de Mujeres*

y Hombres. Es más, entre las funciones de las Unidades departamentales para la igualdad de mujeres y hombres, reguladas en el artículo 10, 11 y 12 de la misma *Norma Foral 2/2015*, se encuentran las de "asistir a los órganos de sus departamentos" o "impulsar la integración de la perspectiva de género en las normas, políticas, programas y acciones de su departamento". Siendo esto así y entendiendo que se ha valorado la pertinencia de garantizar especialmente la participación por invitación del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se recomienda hacerlo de la siguiente manera:

"A su vez, mediante invitación de la Comisión Técnica de Trabajo, podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos, y de manera excepcional, el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, con el fin de asesorar en la incorporación de la perspectiva de género en las funciones y trabajos considerados más relevantes de esta".

Finalmente, en relación con **la utilización no sexista del lenguaje,** se aprecia el esfuerzo realizado, que a su vez se ha explicitado en el informe, para utilizar un lenguaje inclusivo en la versión del texto en castellano.

Donostia, a 26 de octubre de 2023

Laura Gómez Hernández
Técnica de Igualdad

Ana Agirre Sáez de Eguilaz
Jefa de Servicio del O.I.

Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres


Zakarrontzia
Microsoft Teams
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
10:04
10/11/2023
Inicio - Intranetak
Euskara-Gaztelania itzultzaile a
Foru Dekretu proiektua Suspert
https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/araudia/jendaurreko-informazioa?p_p_id=TablonAnuncios_WAR_LEEtablonAnunciosportlet&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&_TablonAnuncios_WAR_LEEtablon
EGOITZA ELEKTRONIKOA
Egoitzari buruz
Herritarrentzako arreta
Tramiteak
Enplegu publikoa
Kontratazioa
Araudia
GAO
Gipuzkoa / Egoitza elektronikoa / Araudia / Tramitazio bidean / Jendaurreko informazioa
Araudia
Indarrean
Tramitazio bidean
Aurretiazko kontsulta
Jendaurreko informazioa
Arauak egiteko prozeduren zerrenda
Foru Dekretu proiektua Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzeko.
Hasiera eguna: 2023/11/10
Bukaera eguna: 2023/12/12
Zure ekarpenak edo alegazioak egiteko helbide elektronikoa: Kontuhartzailetza-Kontrataziomahaiak@gipuzkoa.eus
Artxibo erantsiak
Foru dekretuaren proiektua ikusi
Itzuli
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoa Plaza, 1
+34 943 11 21 11
gipuzkoa@gipuzkoa.eus
10:04
10/11/2023

Txosten juridikoa: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzea ahalbidetuko duen gobernantza egituraren esparru orokorra arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua.

COVID-19ak eragindako pandemiak inpaktu ekonomiko eta sozial handia izan du Europar Batasuneko herrialde guztietan, eta estatu kideen erantzun azkarra, solidarioa eta koordinatua eskatu du, ekarri duen krisiaren ondorioak arintzeko eta susperraldi ekonomiko azkarra bultzatzeko. EBk helburu horretarako hartutako neurriak 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparru indartuaren barruan hartu dira, baita EBk susperraldi ekonomiko horri begira inoiz finantzatu duen bitartekorik handienaren babesean ere. 2020ko uztailean onetsitako bitarteko horrek, Suspertzerako Europako Bitartekoa deritzonak («Next Generation EU») 750.000 milioi euroko zuzkidura du, eta hura gauzatzeko bi mekanismo nagusi erabiltzen dira: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (aurrerantzean, SEM) eta REACT-EU Funtsak (Kohesiorako eta Europako Lurraldeak Suspertzeko laguntzak).

Suspertzerako Europako Funtsaren finantza baliabideak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatuz gauzatuko dira (SEEP, aurrerantzean). Plan hori 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onetsi zuen Ministroen Kontseiluak.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan hori gauzatu eta Europako funtsak hobeto kudeatzeko tresnak eskura jarriko dituen modernizazio prozesuari ekiteko asmoz, Espainiako Gobernuak errege lege dekretu hau onetsi zuen: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak zenbait errekerimendu ezartzen ditu SEEParen bidez finantzatzen diren proiektuen jarraipenari dagokionez, eta, besteak beste, dio ezen, aldian-aldian, informazioa bidali beharko dela Planeko proiektu edo ekimenei egotzitako gastuen kontabilitate exekuzioaren jarraipenari buruz,

Informe jurídico: Proyecto de Decreto Foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

La pandemia provocada por la COVID-19 ha tenido un drástico impacto económico y social en el conjunto de los países de la Unión Europea (UE), que ha exigido una respuesta rápida, solidaria y coordinada por parte de sus Estados miembros, dirigida a amortiguar los efectos de la crisis generada e impulsar la pronta recuperación económica. Las medidas adoptadas a tal fin por la UE giran en torno a un Marco Financiero Plurianual para 2021-2027 reforzado y la aprobación, en julio de 2020, del mayor instrumento de estímulo económico jamás financiado por la UE, el Instrumento Europeo de Recuperación ("Next Generation EU"), por importe de 750.000 millones de euros y cuyos instrumentos principales son el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR, en adelante) y los Fondos REACT-EU de Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa.

La instrumentación de la ejecución de los recursos financieros del Fondo Europeo de Recuperación ser realizará a través del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia (PRTR, en adelante), aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 27 de abril de 2021.

Con el objeto de acometer un proceso de modernización que proporcione las herramientas necesarias para la ejecución del mencionado Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, y para la mejor gestión de los fondos europeos, se aprueba el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

El citado Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre establece una serie de requerimientos en relación con el seguimiento de los proyectos financiados a través del PRTR, con la obligación de remitir periódicamente, con la periodicidad, procedimiento y formato que establezcan las autoridades estatales, información sobre el

Estatuko agintariek ezartzen dituzten maiztasuna, prozedura eta formatua errespetatuz.

Aurreikuspen horiek garatzeko, bi agindu hauek eman ziren: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, SEEPa kudeatzeko sistema konfiguratzen duena; eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baita zer prozedurari jarraituko zaion eta zein formatu izan behar duen Estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek eman beharreko informazioak, SEEParen ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko eta neurri horien aurrekontu eta kontabilitate exekuzioaren jarraipena egiteko.

2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriak arautzen du nola egingo den interes gatazkaren arriskuaren azterketa sistematiko eta automatizatua SEEPa egikaritzen duten prozeduretan, eta esaten du sistema hori Espainiako Zerga Administrazioko Estatu Agentzian (AEAT, aurrerantzean) ostatatuta dagoen *«data mining»* tresna informatikoan oinarrituko dela. Orobat dio hura aplikatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren agindu bidez arautuko direla.

Hala, ministerio horrek urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua eman zuen, eta bertan gai hauek arautu ditu: kontratazio prozeduretan edo laguntzak ematea xede dutenetan zein den interes gatazkarik ez egoteari buruzko deklarazioak izan behar duen gutxieneko edukia, nola kargatuko den informazioa AEATren tresna informatikoan interes gatazkaren arriskua aztertzeari begira, zein modutan itzuliko dituen tresna horrek azterketaren emaitzak, zer prozedurari jarraituko zaion AEATk ez duenean entitateen titulartasun errealari buruzko informaziorik; eta, azkenik, zer ondorio izango diren interes gatazkaren arrisku egoera bat, bandera gorriarekin seinalatua, identifikatzen denean.

SEEParen eremuko interes gatazkaren arriskuari buruzko aldez aurreko analisiaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduak, SEM mekanismoa ezartzen duenak, 22. artikuluan xedatutako obligazioan aurkitzen dugu. Izan ere, bertan esaten da ezen, Batasunaren interes finantzarioak babesteari begira, estatu kide bakoitzaren betebeharra izango

seguimiento de la ejecución contable de los gastos imputados a proyectos o iniciativas del Plan.

En desarrollo de tales previsiones, se han dictado la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del PRTR, y la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y el formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del PRTR.

La disposición adicional centésima décima segunda de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, regula el procedimiento de análisis sistemático y automatizado del riesgo del conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR, basándose en una herramienta informática de *data mining*, con sede en la Agencia Estatal de Administración Tributaria de España (AEAT, en adelante) y establece que mediante orden de la Ministra de Hacienda y Función Pública se regularán todos aquellos aspectos que resulten necesarios para su aplicación.

Así, se dicta la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero que regula el contenido mínimo de la declaración de ausencia de conflicto de interés de los decisores en los procedimientos de contratación o de concesión de ayudas, la descripción del procedimiento de carga de información en la herramienta informática de la AEAT para la realización del análisis del riesgo de conflicto de interés,, la devolución por la misma de los resultados del análisis, el procedimiento en los casos de entidades sin información de titularidad real en la AEAT y la concreción de los efectos de la identificación de la existencia de una situación de riesgo de conflicto de interés, señalizada con una bandera roja.

El análisis *ex ante* del riesgo de conflicto de interés en el ámbito del PRTR tiene su fundamento en la obligación que, conforme a los dispuesto en el artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el MRR, le incumbe a cada Estado miembro en relación con la protección de los intereses financieros de la Unión, en particular, la obligación de tomar las medidas

dela, bereziki, neurri egokiak hartzea interes gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzeko.

oportunas para prevenir, detectar y corregir el conflicto de interés.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2022ko otsailaren 8an Eusko Jaurlaritzak erabaki bat hartu zuen SEEPtik eratorritako funtsen aurrekontu eta kontabilitate kudeaketan aplikatu beharreko irizpideak ezartzeko, bai eta plan horri lotutako jarduketak eta proiektuak kudeatu eta haien jarraipena egiteko ere. Erabaki horren xedea da prozedura arau batzuk ezartzea ziurtatzeko SEEParen funtsekin finantzatzen eta exekutatzen diren aurrekontu gastuek behar besteko aurrekontua, kudeaketa, jarraipena, exekuzioa, kontrola eta ebaluazioa izango dituztela plan horretan aurreikusitako mugarriak eta helburuak lortzeko.

En lo que respecta a la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Gobierno Vasco adoptó el 8 de febrero de 2022 un acuerdo para el establecimiento de los criterios aplicables para la gestión presupuestaria y contable de los fondos derivados del PRTR, así como para la gestión y seguimiento de las actuaciones y proyectos vinculados a dicho plan, con el que se pretende establecer unas reglas procedimentales para asegurar que los gastos presupuestarios que se financien y ejecuten con cargo a la percepción de fondos afectos al PRTR tengan una presupuestación, gestión, seguimiento, ejecución control y evaluación, que garanticen la consecución de los hitos y objetivos previstos en dicho plan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, erakundearen zuzentasun sistema bat dauka ezarria 2016. urteaz geroztik, baita dagozkion kode etikoak eta Erakundearen Etika Batzorde bat ere, iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantzia erakusten duen politikaren aldeko apustu sendoa adierazteko.

Por su parte, la Diputación Foral de Gipuzkoa dispone desde 2016 de un sistema de integridad institucional, sus correspondientes códigos éticos y una comisión de ética institucional, que representan una apuesta consolidada por una política de tolerancia cero con el fraude y la corrupción.

Testuinguru horretan, eta SEEParen neurrien exekuzioan parte hartzen duen entitatea den aldetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako betebeharra betez eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.1 artikuluan xedatutakoari jarraituta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2021eko abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan iruzurra saihesteko neurrien plana onetsi zuen, baita iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala ere.

En este contexto y como entidad que participa en la ejecución de medidas del PRTR, para dar cumplimiento a la obligación recogida en el artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, y a lo dispuesto en el artículo 6.1 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 28 de diciembre de 2021 el Plan de medidas antifraude en proyectos cofinanciados por la Unión Europea y la declaración institucional contra el fraude.

Gainera, kontuan izan behar da Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aitortu egin duela bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren izaera partikularra eta bai autoantolaketarako duen gaitasuna, eta, beraz, SEM funtsen kudeaketaren ondorioetarako, autonomia erkidegoen eremuarekin parekatzen du aldundia, eta ez gainerako toki entitateekin.

Además, hay que tener en cuenta que el Ministerio de Hacienda y Función Pública reconoce el carácter particular y la capacidad de autoorganización de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de forma que equipara a efectos de gestión de los fondos MRR al ámbito de las Comunidades Autónomas frente al resto de las Entidades Locales.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, funtsezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak gobernantza egitura bat izatea, honako hauek bermatzeko: zuzendaritza eta plangintza bateratu bat hala behar

Teniendo en cuenta todo lo expuesto, resulta fundamental que la Diputación Foral de Gipuzkoa cuente con una estructura de gobernanza que garantice una dirección y planificación conjunta en

duten gaietan, koordinazioa prozedurak kudeaketa printzipioetara egokitzeko garaian, eta funtsen kudeaketari buruzko informazioaren azterketa eta jarraipena.

Gai hori da, hain zuzen, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onesteko aurkezten den foru dekretu proiektu honen xedea, eta, horretarako, prestatzen da txosten hau.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 70. artikuluaren 1. apartatuko c) letraren azken tartekian aurreikusitako izapidea betetzeko, honako hau adierazten da:

Lehenengo.- Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko irailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretuaren 20. artikuluko 3. apartatuan, Idazkaritza Teknikoari esleitzen zaio agintzen zaizkion xedapen proiektuak prestatzea eta haien jarraipena egitea. Bestalde, uztailaren 29ko 396/2016 Foru Aginduaren bidez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zerga izaerakoak ez diren xedapen orokorren prestaketan laguntzeko eginkizuna esleitu zion Idazkaritza Teknikoari, departamentuaren eskumeneko gaiak direnean.

Bigarren.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 31.4 artikuluaren c) letran xedatutakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluak eskumena du Foru Aldundiaren egitura organikoa eta antolamenduko beste edozein erregelamendu onesteko.

Hirugarren.- Aztergai den proiektuaren edukia bat dator ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin eta, bereziki, 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko (aurreratzean SEEP), HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bitartez SEEParen kudeaketa sistema konfiguratzen da, HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baita zer prozedurari jarraituko zaion eta zein formatu izan behar duen Estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek eman beharreko

las cuestiones que lo precisen, la coordinación en la adaptación de los procedimientos a los principios de gestión, así como el análisis y seguimiento de la información referente a la gestión de los fondos.

Esta cuestión es el objeto del presente proyecto de decreto foral que se somete a la aprobación del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, para lo cual se emite el presente informe.

En cumplimiento del trámite previsto en la letra c), último inciso, del apartado 1 del artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se informa lo siguiente:

Primero. - Que de conformidad con lo dispuesto en el art. 20 del Decreto Foral 10/2020, de 29 de septiembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, se asigna a su Secretaría Técnica en su apartado 3 el estudio, elaboración y seguimiento de aquellos proyectos de disposiciones que se le encomienden. Por su parte, mediante la Orden Foral 396/2016, de 29 de julio, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, se atribuyó a la Secretaría Técnica la colaboración en la elaboración de disposiciones de carácter general que, siendo competencia del departamento, no tengan el carácter de tributarias.

Segundo.- Que el Consejo de Gobierno Foral es competente, según lo dispuesto por la letra c) del artículo 31.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del territorio Histórico de Gipuzkoa, para aprobar la estructura orgánica de la Diputación Foral así como cualquier reglamento organizativo.

Tercero.- Que el contenido del proyecto que es objeto de análisis es conforme con lo establecido en el ordenamiento jurídico, en particular, en el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del PRTR, la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del PRTR, la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y el formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y

informazioak, SEEParen ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko eta neurri horien aurrekontu eta kontabilitate exekuzioaren jarraipena egiteko, HFP/55/2023, urtarrilaren 24koa, SEEPa egikaritzen duten prozeduretan interes gatazka sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa eta 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.

Laugarren.- Txosten hau egiten da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 70. artikuluan ezartzen duen prozedurarekin bat etorriz.

de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del PRTR, la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR y . la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Cuarto.- Que este informe se efectúa de conformidad con el procedimiento previsto en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Txoten juridikoa

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
GARZON LAPLACE, AMAIA - Idazkaritza Teknikoko Zerbitzu Juridikoen Ataleko AOT / TAG de la Sección de Servicios Jurídicos de Secretaría Técnica
Data / Fecha: 2023/10/24 12:36:42

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

SOLICITUD PARA PUBLICAR INFORMACIÓN EN LA SEDE ELECTRÓNICA: PROCESO DE ELABORACIÓN DE NORMAS

Solicitante

Nombre y apellidos *	SUSANA EGUZQUIZA LUNA
Departamento *	Hacienda y Finanzas
Correo electrónico *	seguzquiza@gipuzkoa.eus
Teléfono	943112263

Información a publicar

Tipo de contenido *	Relación actualizada de los procedimientos de elaboración de normas
Periodo de publicación: fecha inicio *	17/07/2023
Periodo de publicación: fecha fin *	19/12/2023
Título euskera *	FORU AGINDUA, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautuko duen foru dekretu bat egiteko prozedura hasteko baimena ematen duena.
Título castellano *	ORDEN FORAL por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un decreto foral por el que se regula el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)
Objeto euskera	Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik (SEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautuko duen foru dekretu bat egin.

ONF09535bb6a-7a80-4b1b-957c-4d19adc96b78

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

SOLICITUD PARA PUBLICAR INFORMACIÓN EN LA SEDE ELECTRÓNICA: PROCESO DE ELABORACIÓN DE NORMAS

Objeto castellano	Elaboración de un decreto foral por el que se regula el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

ONF09535bb6a-7a80-4b1b-957c-4d19adc96b78

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

SOLICITUD PARA PUBLICAR INFORMACIÓN EN LA SEDE ELECTRÓNICA: PROCESO DE ELABORACIÓN DE NORMAS

Calendario provisional de trámites

Trámite	Fecha
1. Consulta pública previa	
2. Orden foral de inicio del procedimiento	04/07/2023
3. Aprobación del texto por el o la diputada foral	15/09/2023
4. Informes preceptivos	29/09/2023
5. Audiencia, consulta o información pública	19/09/2023
6. Memoria explicativa del procedimiento seguido	23/10/2023
7. Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora	01/12/2023
8. Aprobación por el órgano competente	19/12/2023
9. Envío a Juntas Generales	

Observaciones

Departamento: **Gobernanza**
Unidad: **Servicio de Innovación y Transformación de la Administración**

Código Seguro de Verificación: **ONFO9535bb6a-7a80-4b1b-957c-4d19adc96b78**
Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:
https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

MEMORIA

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzea ahalbidetuko duen gobernantza egituraren esparru orokorra arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua.

SARRERA

Foru dekretu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

COVID-19aren pandemiaren ondorioz jasandako ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko, Europako Kontseiluak Europar Batasuneko Berreskuratze Bitartekoa onartu zuen 2020ko uztailaren 21ean, "Next Generation EU" izenez ezagutzen dena. Tresna horren ardatz nagusia Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa da (aurrerantzean BEM). Mekanismo horren helburua da pandemiaren eragin ekonomikoa eta soziala arintzea, Europar Batasuneko estatu kideek hasitako erreformak eta inbertsioak babesteko mailegu eta dirulaguntza sistema baten bidez.

Europako Berreskuratze Funtsaren finantza baliabideak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatuz gauzatuko dira (BEEP, aurrerantzean). Plan hori 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onetsi zuen Ministroen Kontseiluak.

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, presazko neurriak onartzen dira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.

Aipatutako 36/2020 Errege Lege Dekretuak gobernantza egitura bat sortzea aurreikusten

MEMORIA

Proyecto de Decreto Foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)

INTRODUCCIÓN

El presente decreto foral tiene por finalidad la regulación del marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Para hacer frente a las secuelas socioeconómicas sufridas como consecuencia de la pandemia de la COVID-19, el Consejo Europeo aprobó el 21 de julio de 2020 el Instrumento de recuperación de la Unión Europea, conocido como “Next Generation EU”. El eje central de este instrumento está constituido por el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (en adelante, MRR), que está destinado a mitigar el impacto económico y social de la pandemia a través de un sistema de préstamos y subvenciones para apoyar las Reformas e Inversiones emprendidas por los Estados miembros de la Unión.

La instrumentación de la ejecución de los recursos financieros del Fondo Europeo de Recuperación se realizará a través del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (en adelante, PRTR), aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 27 de abril de 2021.

Mediante el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del PRTR.

El mencionado Real Decreto-ley 36/2020 contempla la creación de una estructura de

du. Egitura horrek parte hartze prozesu bat errazten du, eragile ekonomiko, sozial eta politiko nagusien proposamenak txertatzeko, eta administrazioko mailen arteko koordinazio mekanismo gisa jarduten du.

gobernanza que favorezca un proceso participativo para incorporar las propuestas de los principales agentes económicos, sociales y políticos y ejerza de mecanismo de coordinación entre los distintos niveles de la Administración.

Era berean, errege lege dekretu horrek beharkizun batzuk ezartzen ditu BEEParen bidez finantzatutako proiektuen jarraipenari dagokionez. Hala, aldian-aldian, informazioa igorri behar da planaren proiektuei edo ekimenei egotzitako gastuen kontabilitate exekuzioaren jarraipenari buruz, estatuko agintariek ezarritako aldizkakotasun, prozedura eta formatuarekin.

Asimismo, el citado Real Decreto-ley establece una serie de requerimientos en relación con el seguimiento de proyectos financiados a través del PRTR, con la obligación de remitir periódicamente, con la periodicidad, procedimiento y formato que establezcan las autoridades estatales, información sobre el seguimiento de la ejecución contable de los gastos imputados a proyectos o iniciativas del Plan.

Aurreikuspen horiek garatzeko, honako agindu hauek eman dira: irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua eta urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua.

En desarrollo de tales previsiones, se han dictado la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre y la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero.

Horregatik guztiagatik, eta betiere Gipuzkoako Foru Aldundiaren administrazio ahalmenak hobetzen laguntzeko eta Europako araudia eta estatu mailan horretarako emandako araudia betetzeko, egokia da Gipuzkoako Foru Aldundiak gobernantza bat izatea, BEMetik datozen funtsen plangintza, diseinua eta exekuzioa modu ordenatuan egin ahal izateko.

Por todo ello, y con la finalidad de contribuir a la mejora de las capacidades administrativas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de dar cumplimiento a la normativa europea, así como a la dictada al efecto a nivel estatal, es oportuno que la Diputación Foral de Gipuzkoa se dote de una gobernanza que le permita abordar de forma ordenada la planificación, diseño y ejecución de los fondos provenientes del MRR.

EDUKIA

CONTENIDO

Foru dekretuak bi kapitulu ditu, zazpi artikulu, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat.

El decreto foral consta de dos capítulos, siete artículos, dos disposiciones adicionales y una disposición final.

I. kapitulua xedapen orokorrei buruzkoa da, eta hartan dekretu honen xedea eta aplikazio eremua jasotzen dira.
Hala, haren xedea gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea da, BEMetik datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

En el Capítulo I, de disposiciones generales, se recoge el objeto y el ámbito de aplicación del presente decreto.
Así, el objeto del mismo es regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del MRR.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta foru sektore publikoko gainerako entitateei aplikatuko zaie.

II. kapituluan, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen eginkizunak banatzen dira, bai eta Gobernantza Departamentuari, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiari berariaz dagozkienak ere.

Gainera, II. kapitulu honetan, Lan Batzorde Teknikoa eratzen da, departamentuek eta foru sektore publikoko entitateek BEMaren jarraipena egiteko egiten dituzten jarduerak laguntzeko eta koordinatzeko organo gisa.

Bestetik, lehendabiziko xedapen gehigarriak ahalmena ematen dio Ogasun eta Finantza Departamentuko titularrari foru dekretu hau garatzeko behar diren xedapenak emateko.

ARAUGINTZAKO PROZEDURA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikuluan xedatutakoa betez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak FA-OG-2023-0289 Foru Agindua eman zuen uztailaren 4an, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako funtsak hobeto ezartzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzen duen Foru Dekretua hastea baimentzen duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan jasotako aurretiazko kontsultari dagokionez, eta foru dekretuaren edukia kontuan hartuta, ez zen aurretiazko

El presente decreto foral será de aplicación a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al resto de entidades que pertenecen al sector público foral.

En el Capítulo II, se distribuyen las funciones de los distintos departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como las que específicamente corresponden, tanto al Departamento de Gobernanza, como a la Dirección General de Finanzas y Presupuestos y a la Dirección General de Política Fiscal y Financiera del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Además, en este Capítulo II se constituye la Comisión Técnica de trabajo como órgano de apoyo y coordinación de las actuaciones de los distintos departamentos y entes del sector público foral para el seguimiento del MRR.

Por su parte, la disposición adicional primera faculta a la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo del presente decreto foral.

PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN NORMATIVA

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas dictó la Orden Foral FA-OG-2023-0289, de 4 de julio, por la que se autorizó la iniciación de un Decreto Foral por el que se regula el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

En relación con la consulta previa prevista en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y atendiendo al contenido del decreto foral, se

kontsultaren izapidea egin, arau proposamenak aipatutako legeak salbuesten duen azken kasua betetzen duela iritzita, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoaren antolamendu alderdiak arautzen baititu.

Martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauak, Foru gobernantza publikoaren esparruan izan beharreko Gobernu Onari buruzkoak, 32.a) artikuluan jasotakoari jarraituz, argitara eman ziren gardentasunaren atarian foru dekretu proiektuaren tramitazioan jasota dauden mugarriak.

Izapide horiek eginda, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak proiektuari oniritzia eman zion 2022ko azaroaren 9an, behin Idazkaritza Teknikoak aldeko txosten juridikoa idatzi eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 27.2 artikuluaren a) letran aipatzen den generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena egin eta gero. Azken txosten hori memoria honen II. eranskin gisa aurkezten da.

Ondoren, jendaurreko informazioaren izapidea egin zen 2023ko azaroaren 10etik 2023ko abenduaren 12ra bitartean, eta, horretarako, proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratu zen.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako idazkaritza teknikoei foru dekretuaren proiektuaren berri eman zitzaien posta elektronikoz, egokitzat jotzen zituzten ekarpenak egin zitzaten.

Informazio publikoko aldi horretan, ekarpenak jaso dira Zaintzetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren aldetik.

Era berean, Berdintasun Organoak 7.2 artikulua berridaztea proposatu du, Lan Batzorde Teknikoan parte hartzeari dagokionez.

omitió el trámite de consulta previa al considerar que la propuesta normativa cumple el último supuesto excepcionado por la citada ley, ya que regula aspectos organizativos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del sector público foral.

Tal y como establece el artículo 32.a) de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública, se publicaron los hitos previstos en la tramitación del proyecto de decreto foral en el portal de transparencia.

El Diputado foral de Hacienda y Finanzas, con fecha 09 de noviembre de 2023, dio conformidad al proyecto, previo informe jurídico favorable de la Secretaría Técnica y una vez efectuado el informe de evaluación previa de impacto en función del género al que se refiere la letra a) del artículo 27.2 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igual de mujeres y hombres. Este informe, se adjunta como anexo II de esta memoria.

Posteriormente, se evacuó el trámite de información pública entre el 10 de noviembre de 2023 y el 12 de diciembre de 2023, publicándose el proyecto a tales efectos en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Asimismo, se difundió mediante correo electrónico a las Secretarías Técnicas de los diferentes departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el proyecto de decreto foral con el objeto de que pudieran realizar las aportaciones que consideraran oportunas.

En el mencionado periodo de información pública se han recibido aportaciones por parte del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales y del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.

Asimismo, el Órgano de Igualdad ha propuesto una nueva redacción del apartado 2 del

Bestetik, Ogasun eta Finantza Departamentuko itzultzaileak zehaztapen bat bidali du Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana euskaraz izendatzeari buruz.

Puntu honetan, nabarmendu behar da ezen, Dirulaguntzen Araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Dirulaguntzen Erregistro Orokorra sortu denez, eta BEEPak finantzatutako proiektuekin lotutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza eta laguntza publikoei buruzko informazioa nahitaez bidali behar denez, 5. apartatu bat gehitu zaiola foru dekretuaren proiektuaren 5. artikuluari.

Ondorioz, eta jasotako ekarpenak kontuan hartuta, aldaketa hauek egin dira jendaurrean jarritako testuan:

- Euskarazko bertsioan, aldatu egiten da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren izena (SEM); horrela, izen berria "Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM)" izango da, eta, era berean, aldatu egiten da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren izena (SEEP), eta aurrerantzean Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (BEEP) izango da.
- Departamentu bakoitzak komunikazio arduradun bat izendatzeko duen eskumena, 3.1.c) artikuluan adierazitakoa, departamentu bakoitzeko titularrari esleitzen zaio, eta 3. artikulu bereko 3. apartatuan gehitzen da eskumen hori.
- 5. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren eginkizunei dagokienez. Apartatu horretan honako hau zehazten da: «BEEPren barruan

artículo 7 en lo que respecta a su participación en la Comisión Técnica de trabajo.

Por su parte, el técnico de traducción del Departamento de Hacienda y Finanzas remite una puntualización sobre la denominación en euskera del Mecanismo de recuperación y resiliencia así como del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Destacar en este punto que ante la creación del Registro General de Subvenciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi mediante la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, reguladora del Régimen de Subvenciones y la obligatoriedad de remitir la información de las subvenciones y ayudas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa relacionados con los proyectos financiados por el PRTR, se añade un nuevo apartado 5 al artículo 5 del proyecto de decreto foral.

En consecuencia y atendiendo a las aportaciones recibidas, se realizan en el texto expuesto a información pública, los cambios que se detallan:

- En la versión en euskera se modifica la denominación del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, así la nueva denominación pasa a ser “Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanimoa (BEM)” y del mismo modo se modifica la denominación del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia que pasa a ser Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (BEEP).
- La competencia atribuida a cada departamento para el nombramiento de una persona responsable de comunicación señalada en el artículo 3.1.c), se atribuye a la persona titular de cada departamento añadiéndose la misma en el apartado 3 del mismo artículo 3.
- Se añade un nuevo apartado 5 al artículo 5, en relación con las funciones de la Dirección de Finanzas y Presupuestos y en el que se determina

finantzatutako proiektuetarako dirulaguntza eta laguntza publikoen kasuan, beharrezko informazioa bidaliko du indarrean dauden sarbide orokorreko informazio publikoko plataformetara».

- Honela idatzita gelditzen da 7.2 artikuluaren azken paragrafoa: «Era berean, Lan Batzorde Teknikoaren gonbidapenaren bidez, beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute, besteak beste, eta salbuespen gisa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, haren eginkizun eta lan garrantzitsuenetan genero ikuspegia txertatzeko aholkuak emateko, baita egokitzat jotzen diren kanpoko pertsonek ere».

que "*Remitirá la información necesaria en el caso de subvenciones y ayudas públicas de proyectos financiados dentro del PRTR a las plataformas de información pública de acceso general vigentes*".

- El último párrafo del apartado 2 del artículo 7 queda redactado del siguiente modo: "*A su vez, mediante invitación de la Comisión Técnica de Trabajo, podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos, y de manera excepcional, el Órgano de Igualdad de Mujeres y Hombres, con el fin de asesorar en la incorporación de la perspectiva de género en las funciones y trabajos considerados más relevantes de esta, así como las personas ajenas que se consideren oportunas*".

Izapide horiek eginda, proposatutako testua Lege Aholku Batzordeari aurkezten zaio, irizpena eman dezan.

Evacuados dichos trámites, se somete el texto propuesto al dictamen de la Comisión Jurídica Asesora.

PROPOSAMENAREN ERAGIN EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Proiektuaren eragin ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, memoria honen III. eranskinean jasotzen da Ogasun eta Finantza Departamentuko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuko Azterlan Atalak egindako txostena.

IMPACTO ECONÓMICO-FINANCIERO DE LA PROPUESTA

En relación al impacto económico financiero del proyecto, en el anexo III de esta memoria se recoge el informe elaborado por la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Zerbitzu Juridikoen Ataleko AOT
TAG de la Sección de Servicios Jurídicos

O.E. / VºBº
Departamentuko Idazkari Teknikoa
Secretaria Técnica del Departamento

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Memoria DF Estructura

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
GARZON LAPLACE, AMAIA - Idazkaritza Teknikoko Zerbitzu Juridikoen Ataleko AOT / TAG de la Sección de Servicios Jurídicos de Secretaría Técnica
Data / Fecha: 2024/02/08 09:27:05

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
GALLASTEGUI AMIAMA, Laura - SECRETARIA TÉCNICA DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS
Data / Fecha: 2024/02/08 10:29:17

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko azaroaren 28a, osteguna — 230 — Jueves, a 28 de noviembre de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK | 1 | DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

54/2024 Foru Dekretua, azaroaren 26koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzeko.

I

COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta osasun krisiaren ondorioz, Europar Batasuneko estatu kideek larrialdi neurri koordinatuak hartu zituzten azkar, herritarren osasuna babesteko eta ekonomiaren kolapsoa saihesteko. Arazo horiei erantzun koordinatua eta solidarioa emateko, irismen handiko neurri sorta adostu zuen 2020ko uztailaren 21eko Europar Kontseiluak. Neurri horiek bat egiten dute 2021-2027ko urte anitzeko finantza esparruarekin eta Suspertzerako Europako Bitartekoa (Next Generation EU) abian jartzearekin.

Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, Suspertzerako Next Generation EU Bitartekoa arautzen du. Bitarteko horrek, zeinaren diru zuzkidura 750.000 milioi eurokoa baita, bi tresna nagusi ditu: Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM) eta REACT-EU Funtsak (Kohesiorako eta Europako Lurraldeak Suspertzeko laguntzak).

Berreskuratzerako Europako Bitartekoaren funtsekin lotutako proiektuak gauzatzeak planteatzen duen erronkari erantzungo dion administrazio moderno eta arin bat izateko modernizazio prozesuari ekiteko asmoz, Errege lege Dekretu hau onetsi zen: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko (BEEP).

Ondoren, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren bidez, zeinaren bitartez BEEParen kudeaketa sistema konfiguratzen baita, zehazten dira Europar Batasuneko araudiak BEEPa gauzatzeko ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko gidalerroak, dagozkien organoen kudeaketari dagokionez. Era berean, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua onetsi zen, zeinaren bidez ezartzen baita zer prozedurari jarraituko zaion eta zein formatu izan behar duen Estatuko, Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateek eman beharreko informazioak, BEEParen ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko eta neurri horien aurrekontu eta kontabilitate exekuzioaren jarraipena egiteko.

Ondoren, Europako Batzordeak interes gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzearen arloan BEMaren onuradun diren estatu kideei eskatzen dizkien errekerimenduak betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan oinarrituta, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua eman zen, BEEPa egikaritzen duten prozeduretan interes gatazka sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral 54/2024, de 26 de noviembre, por el que se regula el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

I

La crisis económica y sanitaria provocada por la COVID-19 hizo que los Estados miembros de la Unión Europea adoptaran con rapidez medidas coordinadas de emergencia para proteger la salud de la ciudadanía y evitar el colapso de la economía. Como respuesta coordinada y solidaria a estos problemas, el Consejo Europeo del 21 de julio de 2020 acordó un paquete de medidas de gran alcance. Estas medidas aúnan el marco financiero plurianual (MFP) 2021-2027 y la puesta en marcha de un Instrumento Europeo de Recuperación (Next Generation EU).

El Reglamento (UE) 2020/2094 del Consejo, de 14 de diciembre de 2020, regula el Instrumento de Recuperación Next Generation EU que está dotado con hasta 750.000 millones de euros y cuyos instrumentos principales son el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) y los Fondos REACT-EU de Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa.

Con objeto de acometer un proceso de modernización para contar con una Administración moderna y ágil, capaz de responder al desafío que la ejecución de proyectos vinculados a los fondos del Instrumento Europeo de Recuperación plantea, se aprobó el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR).

Posteriormente, mediante la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del PRTR se concretan las directrices que garanticen el cumplimiento coordinado de los requerimientos establecidos por la normativa comunitaria para la ejecución del PRTR en cuanto a gestión por parte de los órganos correspondientes. A su vez, se aprobó la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del PRTR.

Posteriormente, con objeto de cumplir con los requerimientos en el ámbito de la prevención, detección y corrección del conflicto de interés que la Comisión Europea exige a los Estados Miembros beneficiarios del MRR sobre la base del artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, se dicta la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR.

EK\CV GAO-I-2024-08613

II

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak erabaki bat hartu zuen 2022ko otsailaren 8an, BEEPetik eratorritako funtsen aurrekontu eta kontabilitate kudeaketarako aplikatu beharreko irizpideak ezartzeko, bai eta plan horri lotutako jarduketen eta proiektuen kudeaketa eta jarraipena egiteko ere.

III

Gipuzkoako Foru Aldundiak, BEEParen neurrien exekuzioan parte hartzen duen entitatea den aldetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako betebeharra betez eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.1 artikuluan xedatutakoari jarraituta, 2021eko abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan iruzurra saihesteko neurrien plana onetsi zuen, baita iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala ere.

Azkenik, kontuan hartuta goian deskribatutako erregulazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako entitateek gobernantza egitura arin bat izateko beharra, BEEParen funtsekin finantzatutako proiektuen kudeaketara, inplementaziora eta eskakizunetara hobeto egokitzeko, foru dekretu hau onestea proposatzen da.

Foru dekretu honek Ogasuneko Ministerioarekin izandako elkarrizketen emaitza jasotzen du. Elkarrizketa horien bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere burua antolatzeko duen gaitasuna aitortzen da, eta, horrela, BEM funtsen kudeaketari dagokionez, autonomia erkidegoen eremuarekin parekatzen da, gainerako tokiko erakundeekin parekatu ordez.

IV

Foru dekretu honek zazpi artikulu ditu, bi kapitulutan banatuta, eta bi azken xedapen.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

Foru dekretu honen xedapenak, betiere iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeari dagokionez, Diputatuen Kontseiluak 2021eko abenduaren 28ko bileran onetsitako iruzurraren aurkako neurrien Planean ezarritakoarekin eta hura garatzeko emandako xedapenekin osatuko dira.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta foru sektore publikoko gainerako entitateei aplikatuko zaie.

II

En lo que respecta a la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Gobierno Vasco adoptó el 8 de febrero de 2022 un acuerdo para el establecimiento de los criterios aplicables para la gestión presupuestaria y contable de los fondos derivados del PRTR, así como para la gestión y seguimiento de las actuaciones y proyectos vinculados a dicho plan.

III

En cuanto a la Diputación Foral de Gipuzkoa, como entidad que participa en la ejecución de medidas del PRTR, para dar cumplimiento a la obligación recogida en el artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero, y a lo dispuesto en el artículo 6.1 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, aprobó por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 28 de diciembre de 2021 el Plan de medidas antifraude en proyectos cofinanciados por la Unión Europea y la declaración institucional contra el fraude.

Finalmente, teniendo en cuenta las regulaciones arriba descritas y la necesidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que pertenecen al sector público foral de contar con una estructura de gobernanza ágil para la mejor gestión, implementación y adaptación a las exigencias de los proyectos financiados con fondos PRTR, se propone aprobar este decreto foral.

El presente decreto foral recoge el resultado de las conversaciones mantenidas con el Ministerio de Hacienda por el que se reconoce la capacidad de autoorganización de la Diputación Foral de Gipuzkoa de forma que se equipara a efectos de la gestión de los fondos MRR al ámbito de las comunidades autónomas frente al resto de las entidades locales.

IV

El presente decreto foral consta de siete artículos repartidos en dos capítulos y dos disposiciones finales.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

Es objeto del presente decreto foral regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Las disposiciones de este decreto foral, en lo referido al refuerzo de mecanismos para la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de interés, se completarán con lo establecido en el Plan de medidas antifraude aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en su reunión de 28 de diciembre de 2021 así como con las disposiciones dictadas en su desarrollo.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

El presente decreto foral será de aplicación a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al resto de entidades que pertenecen al sector público foral.

EK\CV GAO-I-2024-08613

II. KAPITULUA

EGINKIZUNEN BANAKETA

3. artikulua. Proiektuak kudeatzen dituzten departamentuen eta foru sektore publikoko entitateen eginkizunak.

1. Bere eskumenak baliatuz, departamentu edo foru sektore publikoko entitate bakoitzari honako eginkizun hauek dagozkio:

a. BEMeko funtsetatik datozen finantzaketa aukerak identifikatzea, eta proiektuak finantzatzeko eskaerak aurkeztea.

b. Proiektuak kudeatzea eta haien jarraipena egitea, aplikatzekoak zaizkien xedapenak eta, hala badagokio, 7. artikuluan aipatzen den lan batzorde teknikoak egiten dituen jarraibideak eta gomendioak kontuan hartuta.

2. Departamentu edo foru sektore publikoko entitate bakoitzak, bere eskumenen esparruan BEMeko funtsekin finantzatutako proiektuak kudeatzen baditu, bere gain hartuko ditu proiektu horien araudian ezarritako konpromisoak eta betebeharrak.

3. Departamentu bakoitzeko titularrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa arlo horretan dituen eskumenak baliatuz, honako eginkizun hauek beteko ditu, foru agindu bidez eskuordetu ahal izango direnak:

a. Hala badagokio, Konferentzia Sektorialen edo BEMeko funtsen exekuzioarekin lotutako beste organo batzuen bileretara joango da.

b. Finantzaketa eskaerak aurkeztuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean.

c. Behar diren ziurtagiriak eskatuko dizkie kasuan kasuko entitate eta administrazioei.

d. Komunikazio arduradun bat izendatuko du.

e. Esleitzen zaion beste edozein.

4. Finantzatutako jarduketen eta proiektuen jarraipena egiteko, departamentuek eta foru sektore publikoko entitateek Ogasun eta Finantza Departamentuak edo 7. artikuluan aipatzen den batzorde teknikoak eskatzen dien informazioa eman beharko dute.

5. Departamentu bakoitzeko idazkari teknikoei dagokie organo kudeatzaileei esleitutako txostenak eta ziurtagiriak egitea, sinatzea eta izapidetzea. Foru sektore publikoko entitateen kasuan, atxikita dauden departamentuko idazkari teknikoari dagozkio eginkizun horiek.

4. artikulua. Gobernantza Departamentuaren eginkizunak.

BEMeko funtsen kargura finantza daitezkeen proiektuak kudeatu eta gauzatzeko, Gobernantza Departamentuak, esleituta dituen eginkizunak betez, behar diren neurriak proposatuko ditu arlo hauetan: giza baliabideen kudeaketa, kontratazioa, prestakuntza, Aldundiaren zuzentasun sistema eta bere eskumenekoak diren edo esleitzen zaizkion beste gai batzuk.

5. artikulua. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak.

1. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko ditu bere jardun eremuan dagozkion edo esleitzen zaizkion kontu hartze, fiskalizazio, kontrol eta auditoretzako eginkizunak eta eskumenak.

2. Aurrekontuen eta kontabilitate arloan laguntza emango die departamentuetako zerbitzuei eta foru sektore publikoko gainerako entitateei.

3. Eginkizun horiek betetzean, funtsak hobeto inplementatzeko egokitzat jotzen dituen neurriak, orientabideak eta jarraibideak ezarri ahal izango ditu.

CAPÍTULO II

DISTRIBUCIÓN DE FUNCIONES

Artículo 3. Funciones de los departamentos y de las entidades del sector público foral que gestionen los proyectos.

1. En el ejercicio de sus competencias, corresponden a cada departamento o entidad perteneciente al sector público foral las siguientes funciones:

a. Identificación de oportunidades de financiación procedentes de los fondos MRR, así como la presentación de solicitudes de financiación para los proyectos.

b. Gestión y seguimiento de los proyectos, atendiendo tanto a las disposiciones que les sean de aplicación, como a aquellas directrices y recomendaciones que, en su caso, elabore la comisión técnica de trabajo a que se refiere el artículo 7.

2. Cada departamento o entidad perteneciente al sector público foral que en el ámbito de sus competencias gestionen proyectos financiados con fondos MRR asumirá los compromisos y obligaciones establecidos por la normativa reguladora de los mismos.

3. La persona titular de cada departamento, como representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el ejercicio de sus competencias por razón de la materia, desempeñará las siguientes funciones, que podrán ser delegadas mediante orden foral:

a. En su caso, acudirá a las reuniones de las Conferencias Sectoriales u otros órganos relacionados con la ejecución de los fondos MRR.

b. Presentará las correspondientes solicitudes de financiación en nombre de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c. Solicitará los certificados necesarios a las entidades y administraciones correspondientes.

d. Nombrará a una persona responsable de comunicación.

e. Cualquier otra que se le asigne.

4. Los departamentos y entidades del sector público foral estarán obligados a suministrar la información que, para el seguimiento de las actuaciones y proyectos financiados, les sea requerida por el Departamento de Hacienda y Finanzas o por la comisión técnica a que se refiere el artículo 7.

5. Corresponde a las secretarias técnicas o a los secretarios técnicos de cada departamento, la elaboración, firma y tramitación de los informes y certificados atribuidos a los órganos gestores. En el caso de las entidades del sector público foral dichas funciones corresponderán a la secretaria técnica o secretario técnico del departamento al que estén adscritas.

Artículo 4. Funciones del Departamento de Gobernanza.

Para la gestión y ejecución de proyectos financiables con cargo a los fondos MRR, el Departamento de Gobernanza, en el ejercicio de las funciones que tiene asignadas, propondrá las medidas necesarias en materia de gestión de recursos humanos, contratación, formación, sistema de integridad y otras materias que sean de su competencia o que le sean asignadas.

Artículo 5. Funciones de la Dirección General de Finanzas y Presupuestos.

1. La Dirección General de Finanzas y Presupuestos tendrá a su cargo el ejercicio de las funciones y competencias de intervención, fiscalización, control y auditoría que le pudieran corresponder en su ámbito de actuación o que le sean asignadas.

2. Apoyará en materia presupuestaria y contable a los servicios de los distintos departamentos y entes del sector público foral.

3. En el ejercicio de estas funciones podrá establecer las medidas, orientaciones e instrucciones que considere oportunas para una mejor implementación de los fondos.

EK\CV GAO-I-2024-08613

4. Eginkizun horiek betetzeko, askatasuna izango du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta funtsen kudeaketan parte hartzen duten foru sektore publikoko gainerako entitateen informazio sistemetara edo funtsen exekuzioarekin lotutako jarduerak jasotzen dituen edozein erregistrotara sartzeko. Edozein entitate publiko edo pribatu behartuta egongo da eginkizun horiek betetzean eskatzen zaion informazioa ematera.

5. BEEPren barruan finantzatutako proiektuetarako dirulaguntza eta laguntza publikoen kasuan, beharrezko informazioa bidaliko du indarrean dauden sarbide orokorreko informazio publikoko plataformetara.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Auditoretzen Urteko Planean sartuko dira funts horien ekonomia, finantza eta kudeaketa kontroleko jarduerak.

6. artikulua. Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak.

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiari, Europako funtsen arloan eskumenak dituen organoa den aldetik, honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio:

1. BEMeko funtsetatik datozen finantzaketa aukerak identifikatzea eta zabaltzea, eta proiektuetarako finantzaketa eskaerak aurkezten laguntzea.

2. Egiten diren kontsultei erantzutea.

3. Jarduteko jarraibide eta irizpide komunak ezartzea proiektu guztietarako.

4. Proiektuen programazioaren, exekuzioaren eta finantzaketaren egoerari buruzko informazioa eskatzea.

5. Jasotako informazioa 7. artikuluan aipatzen den lan batzorde teknikoari helaraztea, azter dezan eta jarraipena egin dezan.

6. Gutxienez urtean behin, BEMeko funtsekin finantzatutako proiektuen egoeraren berri ematea Batzar Nagusiei, Diputatuen Kontseiluari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko gainerako zuzendaritza nagusiei.

7. BEMeko funtsei buruzko informazioa zabaltzea Ogasun eta Finantza Departamentuaren webguneko Europako funtsen orrian.

8. Gipuzkoako Foru Aldundiko Etika Instituzionaleko Batzordeari laguntza ematea, BEMen kargura finantzatutako proiektuen inguruan jasotzen diren salaketak kudeatzeko.

7. artikulua. Lan batzorde teknikoa.

1. Lan batzorde tekniko bat eratzen da, Aldundiko departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen jarduerak laguntzeko eta koordinatzeko organo gisa, BEMaren jarraipena egite aldera.

Lan batzorde tekniko hori eratzeak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko du, hala ezartzen baitu 21.2 artikuluan martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, bai eta 3.10 artikuluan ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak.

2. Batzorde hori zeharkakoa izango da, eta honako hauek ordezkatzen dituzten teknikariek osatuko dute:

a. Ogasun eta Finantza Departamentua: Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusia, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia eta Idazkaritza Teknikoa.

b. Gobernantza Departamentua: Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia eta Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia.

4. Para el ejercicio de estas funciones dispondrá de libertad de acceso a los sistemas de información de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los entes del sector público foral que participen en la gestión de los fondos o a cualquier registro en el que se reflejen actuaciones relacionadas con la ejecución de los mismos. Cualquier entidad pública o privada quedará obligada a facilitar la información que en el ejercicio de estas funciones le sea solicitada.

5. Remitirá la información necesaria en el caso de subvenciones y ayudas públicas de proyectos financiados dentro del PRTR a las plataformas de información pública de acceso general vigentes.

6. Se incluirán en el Plan Anual de Auditorías de la Diputación Foral de Gipuzkoa, las actuaciones de control económico financiero y de gestión de los citados fondos.

Artículo 6. Funciones de la Dirección General de Política Fiscal y Financiera.

Se atribuye a la Dirección General de Política Fiscal y Financiera, como órgano con competencias en materia de fondos europeos, las siguientes funciones:

1. Identificación y difusión de oportunidades de financiación procedentes de los fondos MRR, así como el apoyo a la presentación de solicitudes de financiación para los proyectos.

2. Atender las consultas que se planteen.

3. Establecer pautas y criterios de actuación comunes para todos los proyectos.

4. Solicitar información sobre el estado de programación, ejecución y financiación de los diferentes proyectos.

5. Dar traslado de la información recibida a la comisión técnica de trabajo a la que se refiere el artículo 7, para su análisis y seguimiento.

6. Al menos una vez al año, dar cuenta del estado de los proyectos financiados con fondos MRR a las Juntas Generales, al Consejo de Gobierno Foral y al resto de direcciones generales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

7. Difundir la información relativa a los fondos MRR en la página de fondos europeos del sitio web del Departamento de Hacienda y Finanzas.

8. Prestar apoyo a la Comisión de Ética Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la gestión de las denuncias que se reciban en relación con los proyectos financiados con cargo al MRR.

Artículo 7. Comisión técnica de trabajo.

1. Se constituye una comisión técnica de trabajo como órgano de apoyo y coordinación de las actuaciones de los distintos departamentos y entes del sector público foral para el seguimiento del MRR.

La constitución de la citada comisión técnica de trabajo garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo establecido en el artículo 21.2 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el artículo 3.10 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

2. Esta comisión tendrá carácter transversal, y estará formada por personal técnico representante de:

a. Departamento de Hacienda y Finanzas: Dirección General de Finanzas y Presupuestos, Dirección General de Política Fiscal y Financiera y Secretaría Técnica.

b. Departamento de Gobernanza: Dirección General de Régimen Jurídico, Dirección General de Función Pública y Dirección General de Buen Gobierno e Innovación Político-social.

EK\CV GAO-I-2024-08613

Era berean, Lan Batzorde Teknikoaren gonbidapenaren bidez, beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute, besteak beste, eta salbuespen gisa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, haren eginkizun eta lan garrantzitsuenetan genero ikuspegia txertatzeko aholkuak emateko, baita egokitzat jotzen diren kanpoko pertsonek ere.

3. Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira:

a. Proiektuak kudeatzen dituztenentzat baliagarriak izan daitezkeen orientabideak, jarraibideak eta/edo prozedura eskuliburuak egitea eta zabaltzea, funtsak hobeto exekutatzeko.

b. BEMeko funtsekin finantzatutako proiektuen exekuzioaren eta finantzaketaren jarraipena egitea, arautzen dituen araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla bermatzeko.

c. Eskatzen zaizkion azterlanak, txostenak eta analisiak egitea, bai eta funtsak hobeto inplementatzeko baliagarriak iruditzen zaizkion beste batzuk ere.

d. Esleitzen zaion beste edozein eginkizun.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2024ko azaroaren 26a.

Diputatu Nagusia,
Eider Mendoza Larrañaga.

Ogasun eta Finantza
Departamentuko
Foru Diputatua,
Miren Itziar Agirre Berriotxoa. (8613)

A su vez, mediante invitación de la Comisión Técnica de Trabajo, podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos, y de manera excepcional, el Órgano de Igualdad de Mujeres y Hombres, con el fin de asesorar en la incorporación de la perspectiva de género en las funciones y trabajos considerados más relevantes de esta, así como las personas ajenas que se consideren oportunas.

3. Las funciones de esta comisión serán las siguientes:

a. La elaboración y difusión de orientaciones, instrucciones y/o manuales de procedimiento que pudieran servir a quienes gestionen los proyectos para una mejor ejecución de los fondos.

b. El seguimiento de la ejecución y financiación de los proyectos financiados con fondos MRR para garantizar el cumplimiento de los requisitos exigidos por la normativa que los regula.

c. La elaboración de estudios, informes y análisis que se le requieran y aquellos otros que estime de utilidad para una mejor implementación de los fondos.

d. Cualquier otra función que se le asigne.

Disposición final primera. Habilitación normativa.

Se habilita a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación de este decreto foral.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 26 de noviembre de 2024.

La Diputada General,
Eider Mendoza Larrañaga.

La Diputada Foral
del Departamento de
Hacienda y Finanzas,
Miren Itziar Agirre Berriotxoa. (8613)

EK\CV GAO-I-2024-08613